

**Soldatapeko gazte batek etxebizitza jabetzan eskuratzeko jasan behar duen kostua hileko soldata garbiaren %68 da, EAEn**


***Tasa hori Espainiako estatuko handiena da***

Espainiako **Etxebizitzaren Behategi Gazteak** ([OBJOVI](#)) asteburuan kaleratu dituen datuak —2011ko bigarren hiruhilekoari dagozkionak— aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Datu horien arabera, EAeko 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko batek merkatu askeko etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua %68koa da, hau da, hileko soldata garbiaren %68 eman beharko luke etxebizitza horren hipoteka ordaintzeko.

Merkatu askeko etxebizitzaren salneurriaren %80ri dagokion hipoteka-maileguaren gainean egiten da kalkulu hori, aintzat harturik, batetik, entitate guztietan hipoteka-merkatuaren erreferentziako interes-tipoa (Espainiako Bankuak argitaratua eta 2011ko bigarren hiruhilekoan, batez beste, %3,346 izan dena) eta, bestetik, Espainiako Jabetzaren, Ondasun Higikorren eta Merkataritza Ondasunen Erregistratzaileen Elkargoak unean-unean jasotzen duen amortizatzeko epe estandarra (290 hilabete, 2011ko bigarren hiruhilekoan). Ez da ez hobaririk ez zerga-kenkaririk aintzat hartu (hipoteka sinatzea lortu eta gero eskuratzeko baitira).

Espainiako Estatu osotik, EAek du soldatapeko gazteek etxebizitza jabetzan eskuratzeko kosturik garaiena. Izatez, Espainiako batez bestekoa baino 15 puntu gorago dago EAeko.

**18-34 urte bitarteko soldatapeko gazteek etxebizitza askea jabetzan eskuratzeko jasan beharreko kostua (hileko soldata garbiaren %)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, OBJOVIren datuak (2011ko bigarren hiruhilekokoak) oinarri hartuta*

Etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostuak igoera nabarmena izan du autonomia-erkidego guztietan, 2011ko lehen hiruhilekoarekiko. EAEn kasuan, %62,9tik %68ra igaro da.

Igoera orokor hori interes-tipoen gorakadari zor zaio, nagusiki (2011ko lehen hiruhilekoan %3,000an egotetik, bigarrean %3,346an egotera igaro dira), baina baita amortizazio-epeak murriztu izanari ere (urtearen lehen hiruhilekoan, epe hori 312 hilekoa zen; bigarrean, aldiz, 290ekoa).

EAEko 2011ko bigarren hiruhilekoko datuetara etorruta, kostua handiagoa da adintarterik gazteenean (% 92,7 18 eta 24 urte bitartekoen kasuan), eta behera egiten du adinak gora egin ahala (%69,8 25 eta 29 urte bitartekoen kasuan, eta %61,1 30 eta 34 urte bitartekoen kasuan).

EAEko datuekin jarraituta, gainera daiteke etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua 10 puntu garaiagoa dela soldatapeko emakumeentzat (%74,3), egoera berean dauden gizonentzat baino (%64,1).

Adin-tarteen eta sexuaren araberako alde horien arrazoia honetan datza: soldatek gora egiten dute nagusitu ahala, eta gizon gazteen batez besteko soldatak (19.500 € garbi hilean, gutxi gorabehera) altuagoak dira emakumeenak baino (16.800 € garbi hilean, gutxi gorabehera).

Lurralde historikoei dagokienez, soldatapeko gazte batentzat etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua handiagoa da Bizkaiian (%71,6) eta Gipuzkoan (%70,9), Araban baino (%51,3).